

Langile bat zauritu da Tafallan, bi metroko altueratik erorita

LA HAIN - EUSKAL HERRIA :: 20/01/2025

66 urteko langilea ospitalera eraman dute, eta pronostiko erreserbatua du.

Gaur 09:45 inguruan izan da lan-istripua Tafallan(Nafarroa), konkretuki, Tudela Etorbidean dagoen mekanikako tailer batean. Dirudienez, 66 urteko langile bat bi metroko altueratik erori da ofaindik argitu gabe dauden arrazoiengatik. Zauritutako langilea Iruñeko Unibertsitate Ospitalea eraman dute, eta pronostiko erreserbatua du, 112-SOS Nafarroako larrialdiatarako zerbitzuak jakitera eman duenez.

<https://eh.lahaine.org/langile-bat-zauritu-da-tafallan>